

HONDARRIBIA TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA-PLANA 2015eko EBALUAZIO-EMAITZAK



Gipuzkoako udalerriei TA21eko ekintza-planak ebaluatzeko eta programatzeko zerbitzua

Laguntza teknikoa: ELKARREKIN 21



Tokiko Agenda 21

1992an jaio zen (Rio de Janeiron) Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen goi-mailako gailurrean lortutako hitzarmenaren bidez.

24 urte beranduago, esanguratsua da Gipuzkoako udalerrietan Tokiko Agenda 21ak izan duen garapen-maila.

2016. urtean ebaluatu ditugun ekintza-planak udalerri hauei dagozkie:



Aduna, Alkiza, Arama, Amezketeta, Andoain, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Deba, Debabarrena (eskualde mailako ekintza-plana), Donostia, Hondarribia, Hernani, Ibarra, Irun, Itsasondo, Ordizia, Orendain, Orexa, Tolosa, Urretxu, Zegama eta Zumarraga.


Nolakoa da gure udalerriko ekintza-plana?



Gipuzkoako TA21arekin alderatuz?

Gure ekintza-planeko ekintza-kopurua antzeko tamaina duten lurraldeko udalerrien batezbestekoarekin alderatuz, **handiagoa** da.

Ekintzen garapenean **inplikaturik dauden eragile-kopurua** lurraldeko batezbestekoa baino **altuagoa** da.




Nolakoa izan da ekintza-planaren ezarpen-maila 2015 urtean?

%45 ezarri da
7 urteetan


%1ko
hazkundera
2014 -2015
epealdian

Bilakaerak zer adierazten du?

Lortutako ezarpen-maila **baxuagoa** da desiragarria den **helburuko** balioarekiko, baita urte horretan lurraldeko **batezbesteko balioarekiko** ere.



Nolako da ekintzen ezarpen-maila?



2015ean amaituta dauden ekintza adierazgarri batzuk:

E1.4.4. Foru Aldunditik martxan jarri nahi den kostako ibilbideen proiektua udal mailatik bultzatu, jarraipena egin eta Aldundiarekin koordinatu

E2.3.1. Muliatego etxebizitzaren promozioan gizarte alokairuaren presentzia bermatu

E2.4.1. Loraitzeko haurtzaindegia eraiki eta martxan jartzea

E2.5.1. Osasun zentroaren handitzea gauzatzeko beharrezko koordinazioa lanak aurrera eraman Osakidetzarekin

E2.9.4. Beteranoen Kaian itsasontzi txikiak sartzeko gunea egokitu

E5.1.1. Hondarribiko barne trafikoa eta mugikortasunaren ikerketa gauzatu, aurrez herritarren beharrak aztertuz eta aipatu dokumentua mugikortasun iraunkorreko irizpideekin osatuz

E5.1.2. Hirigune historikoaren peatonalizazioa gauzatu, motordun garraiobideen sarrera kontrolatuz eta garraiobide pribatuen sarrera ekiditeko pausoak emanez, beti ere, bertako bizilagunei zuzendutako alternatibak martxan jarritz

E5.2.1. Udaletik, beste erakunde batzuekin koordinatuz, autobus bideak sortzeko aukera (bide horiek ere taxiak eta bizikletek erabiltzeko) eta udalerrira Irunekin tranbia bidez lotzeko aukerak aztertu

E7.1.3. Hornidura sareko ur isuriak antzemateko eta presioa zein ur emaria neurtzeko puntuak ezartzeko asmoz, besteak beste, hornidura sarearen sektorizazioa aurrera eramatea

2015ean hasteko dauden ekintza adierazgarri batzuk:

E2.3.6. Gizarte alokairua etorkizuneko apustu eta aukeratzat hartzea, horretarako, aurrez alokairuaren inguruko ikerketa bat aurrera eramanez

E6.3.4. Babestutako natur guneetan egiten diren betelaneen gaineko kontrol zorrotzagoa aurrera eraman


E7.5.1. Udaletik nahiz Mankomunitatetik Hondarribian sortzen diren eraikuntza eta eraispen hondakinen inguruko arazoa ikertu eta ekintzak koordinatu

E7.5.2. Mankomunitatearen hondakinen ordenantza abiapuntutzat hartuz, hondakin mota hauen inguruko kontrolik gabeko isurketen inguruko zehapen espedienteak irekitzea bultzatu

E7.5.3. Lurzoru ez hiritargarran ematen diren lizentzien inguruko kontrol eraginkorragoa aurrera eraman

E7.7.3. Hondarribiko airearen kalitatea neurtzeko sistemak ezartzea, Eusko Jaurlaritzaren airearen kalitatea neurtzeko sarearen bidez edo Udalak gauzatutako neurketa zehatzen bidez

Ildo estrategikoen araberako ezarpen-maila



2017 urtera begira bultzada beharko luketen helburu estrategikoak:

UDALERRIKO NATURA INGURUNEA BABESTEIA ETA BERE BALOREAK EZAGUTZERA EMATEA:
%31 ko garapen-maila lortu du.

HIRI INGURUMENAREN KALITATEA HANDITU ETA NATUR BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA SUSTATZEA:
%33ko ezarpen-maila lortu du

HIRIGINTZA EREDU IRAUNKOR BAT DISEINATZEA ETA PLANIFIKATZEA: %38 ko ezarpen-maila lortu du

Partaidetza TA21en baitan:

**TA21EKO FORO
BAKARRA
ANTOLATU DA.
PARTE-HARTZE
PROZESU BERRIAK
TA21AREKIKO
INDEPENDIENTEAK
DIRA**

**LANDU DEN GAI
NAGUSIA
INGURUMEN
BABESARENA IZAN
DA**

**PARTEHARTZAILEAK
15 IZAN DIRA
(8 EMAKUME,
7 GIZON)**

Informazio gehiagorako **ebaluazio-txosten osoa** kontsulta dezakezu (www.hondarribia.eus web gunean eskuragarri)

The screenshot shows the homepage of www.hondarribia.eus. At the top left is the logo for 'hondarribia.eus HONDARRIBIKO UDALA'. To the right are social media icons for Facebook and Twitter, and a search bar with the text 'Bilatu...'. Below the header is a navigation menu with the following items: TRAMITEAK, UDALA, ZURETZAT PENTSATUTAKO HIRIA, HONDARRIBIA BIZI ETA GOZATU, and HARREMANETARAKO. A large banner image of the town of Hondarribia is displayed below the menu. Underneath the banner, there is a breadcrumb trail 'Hasiera / Udala' and social media sharing icons. The main content area is titled 'Udala' and features four service categories, each with a blue icon and a list of sub-services:

- Udal-gobernua**
 - > Alkatetza
 - > Informazio-batzordeak
 - > Udalbatzaren osaketa
 - > Tokiko Gobernu-batzordea
 - > Udalbatzako aktak
 - > Ordenantzak
- Udal-arlo eta Sailak**
 - > Hirigintza eta Ondarea
 - > Ogasuna eta Zerbitzu Orokorrak
 - > Merkataritza eta Turismoa
 - > Landa-garapena, Ingurumena eta Agenda 21
 - > Gizarte-zerbitzuak
 - > Gazteria eta Prebentzioa
 - > Kultura
 - > Euskara
- Udal-bulegoa eta Zentroak**
- Prensa-bulegoa**
 - > Prentsa-oharrak
 - > Gaurkotasuna